

MEMORIA PLAZ&PLAY- DSS2016EU

Plaz&Play Donostia 2016 Europako Kultur hiriburutzaren barruan kokatzen den egitasmoa da. Helburu nagusia, hiriko kale eta plazak jolaserako berreskuratu eta egungo gizartearen jolasteko ohituretan aldaketa bat eragitea izan da. Honela, hiriko hiru plaza edo kale, espazio ludiko moduan aldarrikatu eta jolasez bete ditugu egun batez.

1. Datu orokorrak

Datak	2016ko urriaren 15a
Tokia	Zuloaga plaza Reyes Catolicos kalea Catalunya plaza
Ordutegia	11:00-14:00 16:00-20:00
Hartzaileak	Hiritarrak orokorrean, haur, gazte nahiz heldu.
Antolatzailea	DSS2016EU

2. Antolakuntza orokorra

Horrelako egun batek, atzean antolakuntza lan handia izaten du eta agian zailtasun handienak hor izan ditugu. Espazio publikoa erabiltzean, behar diren, azpiegiturak alde batetik, eta baimenak bestetik, izan dugun denbora eskasarekin elkarturik erlojuz aurkako lasterketa batean sartu gaitu.

Urtxintxan, jolasak kalean egitea ohiturik egon arren, ez ditugu askotan horrelako formatu handian eskaintzen eta honek ere, eragina izan du batez ere azpiegitura kontuetan. Gauzak honela, ez da erraza izan horren denbora gutxian guztia lotzea, baina DSS2016aren laguntzaz eta aholkuen bitartez garaiz iritsi gara guztira. Gauzak honela, baimenak, eszenatokia, musika aparatua, karpak, bideo jokoan

pantailak... jartzeko eskatu ziren. Karpak jartzeko baimenik eman ez ziguten arren, eguraldia lagun izango genuela ikusirik ez genuen karpak jartzeko beharrik izan.

Eguna prestatzeko eta egunerako ere, gune bakoitzean arduradun bat izendatu zen Urtxintxatik, eta guztia koordinatzen berriz beste pertsona bat zegoen. Arduradun bakoitzak bere lan taldea osatu zuen eta baita proposamenean zegoen egitaraua zehaztu eta prestatu ere.

Gune edo espazio bakoitza, lasto fardo batzuekin mugatu genuen, dekorazioaren parte ziren eta hauek helioz beteriko globo laranja batzuk zituzten. Honen bitartez, guneak ikusgarriagoak bihurtu ziren eta ingurua goxatzea eta mugatzea lortu genuen.



Komunikazio aldetik, kartelak atera genituen eta Gipuzkoan nahiz Donostian jarri genituen kartelak. Gure egitasmo batzuetan ere, Plaz&Play-ren berri ematen eskuorriak banatu genituen, eta Sare Sozialen bitartez ere zabaltzen saiatu gara.

Lehen esan bezala, gure zailtasunik handiena denbora izan da. Aurrez bagenekien denbora gutxi izango genuela guztia antolatzeko baina azkenean uste baino gehiago zegoen egiteko eta espero baina denbora gutxiago. Hala ere, gauza guztiak garaiz lotu eta bideratzeko denbora izan dugu eta beraz, urrairen 15erako guztia prest genuen.

3. Eguneko balorazioa

Egitasmoak hiru helburu nagusi zituen:

- Taldekako jolas kooperatiboen bidez jarduera fisikoa sustatzea.
- Jolasaren bidez herritarren arteko harremanak berreskuratzea.
- Espazio publikoa berreskuratzea eta jolaserako zein kirol jarduerarako espazio moduan berrerabiltzea.

Heburuak betetzeko, egunean bertan Urtxintxako 40 pertsona egon ziren lanean, denak ere hiru espazio desberdinetan banaturik. Urtxintxako kideez gain, muntaiako arduradunak, dekorazioa egin zutenak, musikaz arduratzen zirenak eta jolas erraldoiak ekarri zituztenak aritu ziren lanean.

Urtxintxako 40 kideen helburua, jendea jolasean jarri eta berriz ere hiriko gune desberdinak jolaserako berreskuratzea izan zen. Jolasaren bitartez, pertsonak ondo pasatzeaz gain, gaur egun ditugun ohitura batzuk alde batera utzi eta mugimenduaren bitartez adin desberdineko pertsonen ongizatea bilatu genuen. Sortu ziren hiru espazioak, jendez bete ziren eta jendea jolasten aritu zen egun guztian zehar. Pertsona hauek eroso sentitu araziz, elkarren arteko harremanak berreskuratu eta hiriko guneei beste erabilpen bat eman zitzaienten. Horretarako jolas mota desberdinak eskaini ziren, ahalik eta publiko gehiagori iristeko. Gure helburua, etxeko telebista, bideo jokoak.... alde batera utzi eta jendeak kalean jolastea zen heinean, helburu bete dugula

esan dezakegu. Horretarako, momenturo, lehia jolasak alde batera utzi eta ahal zela lankidetzaz jolasak egin genituen hiru guneeetan.

Hala ere, eskaini zen espazio bakoitzak bere nortasun propioa zuenez eta erabiltzaile desberdinak ibili zirenez, espazio bakoitzaren balorazioa egingo dugu.

3.1.- Zuloaga plaza:

Zuloaga Plaza, Txantxarien gunea izan zen. Bertan Urtxintxako pertsonai hauek egunean zehar jolasak eskaintzeaz gain bi emanaldi eman zituzten haurrak eta familiak dantzan eta jolasean jarriaz. Ordu eta erdiko bi emanaldi izan ziren, non Txantxariek beraien musika eta abestien bitartez, jolasak dinamizatu eta jendea gozaz arazi zuten.

Egunean zehar jolas txoko desberdinak eskaini ziren. Bertan ohiko jolasak eskaintzeaz gain, jolas berritzaileago batzuk ere eskaini ziren, Kapla bezala. Jolas tradizionalen artean, txapak, xibak, goma, soka saltoa... izan ziren plazan egunean zehar. Pista jolas bat ere egiteko aukera izan zuten bertaratu zirenak, nahi zutenean hasteko moduan antolatu zen, beste jolasetan etenik ez eragiteko. Jende dezente animatu zen, taldean nahiz familian pista jolasa egitera.

Txokoak eta Txantxarien emanaldiak arrakastatsuak izan ziren eta egun guztian zehar ibili zen jendea jolasean gune honetan. Gune hau, haur txikienei eta hauen familiei bideraturik zegoen, eta publikoa horrelakoa izan zen, familiak. Goiz eta arratsaldean jende asko ikusi genuen bertan jolasez gozaten. Jendea gustura eta gogotsu ikusten zen, egun batez plaza jolasteko gune bihurtu zen eta familiak gustura aritu ziren, saltoka, dantzan, eraikuntzak egiten... azken batean jolas leku erraldoi bat bihurtu zen Zuloaga plaza.



Egunean zehar ez zen inongo arazorik sortu, guztia primeran atera zen eta eguna arrakastatsua izan zen.

3.2.- Catalunya plaza:

Gune honetan jolas erraldoiak, zirko jolasak eta bideo jokoak jarri ziren. Egun guztian zehar tresna pila bat eskaini ziren parte hartzaileentzat eta arrakasta handia izan zuten. Goizetik iluntzera arte begiraleak hurrekin bertako tresna desberdinekin jolasten egon ziren.

Arrakasta handia izan zuten bertako jostailuek



Egun guztian zehar gerturatu zirenek jolas mota desberdinetan aritzeko aukera izan zuten. Jolas erraldoietan, partxis, mikado, 3 lerroan... izan genituen. Zirko jolasetan zankoak, oreka barra... Jolas tradizioaletan zakuak, soka saltoa... Mahai jolasetan lankidetza jolas desberdinak zeuden eta bideo jokoetan wii, play station... Bertan eskaini genituen jolas guztiak jolas ez belikoak eta ez sexistak ziren.

Egun guztian zehar jendea ibili zen plaza honetan. Eskura zituzten jolasak erabili zituzten eta jendea taldean edo bakarka gustura aritu zen jolasean. Jende asko ibili zen gune honetan ere eta egun batez bada ere jendea kalera atera zen bertan jolasteko.



3.3.- Koldo Mitxelena:

Gune honetan lankidetza jolasak eskaini ziren. Horretarako txoko desberdinak antolatu ziren eta bertan taldean egiteko gauzak jarri genituen. Ahulki jolas kooperatiboa, ski kooperatiboak, tennis erraldoia...

Egun guztian zehar jolasteko aukera izateaz gain goizean pista jolas bat egin zen eta arratsaldean beste bat. Arrakasta handia izan zuten pista jolasek eta bakoitzean 20 familia inguru aritu ziren. Pista desberdinen bitartez helburu bat lortu behar zuten guztien artean eta jendea oso gustura aritu zen, jolasean guztiz barneratu zirelarik.

Gune honetan adin guztietako jendea ikusi genuen, haur txikiak eta handiak, familiak eta gaztetxoak. Ohiturik ez dauden jolas motak egiten eta egun batez beste modu bateko ekintza batzuetan parte hartzen, horretarako erabiltzen ez den hiriko gune batean.

Goizean jendea poliki hasi zen gerturatzen baina segituan sortu zen jolasteko giroa eta ondoren jendearen parte hartzea oso handia izan zen.



Harrera bikaina izan zuen guneak, eta egun guztian zehar jendea lankidetzaz lantzen eta beste harreman mota batzuen bitartez jolasten ibili zen. Bertako jolasak,

nahiko mugituak izan ziren eta jendea korrika, dantzan... jolasean ikusteko aukera izan genuen. Giro bikaina sortu zen parte hartzaileen artean eta prest agertu ziren Urtxintxako hezitzaileek proposatzen zien edozertan aritzeko. Gunea oso arrakastatsua izan zen eta agian eguneroko jolasetatik hain desberdina izanik eta lekurengatik, hasiera batean ez genekien jende asko izango genuen baina, gure espektatiba guztiak gainditu zituen guneak.

4.- Balorazio orokorra:

Egitasmoak izan zuen emaitzarekin oso gustura gaude. Egia esan, hiriko hiru gune jolastoki erraldoi bihurtzea lortu genuen. Hasiera batean genituen helburu guztiak bete ziren eta gune egokiak eskaintzeaz gain jendearen erantzuna ederra izan zen.

Hiru guneetan izan genuen jendea jolasten, dantzatzen, korrika... , eta guztiak modu kooperatibo batean. Ez zen inon lehiarik izan. Gune guztiek ordutegia zorrotz bete zuten eta ez zen inon inongo arazorik izan. Gure arazo edo kezka bakarra, gunean ikustarazteko jarri genituen lasto fardoek sortu zuten. Hauek lasto asko askatzen zuten eta egun guztian jasotzen egon behar izan genuen, baina hori izan zen guztia.

Urtxintxatik balorazio positiboa egiten dugu, DSS2016EU-rekin lankidetzatza hau hasi genuenetik bukatu arte, harreman positibo eta ona izan da. Erraz ulertu gara eta ez dugu inongo arazorik izan. Elkarrekin egindako bidea izan da, eta bukaerako emaitza ikusirik, hasiera batean antolaketa lan handia eskatu duen arren merezi izan du egin dugun guztiak. Espero baino jende gehiago hurbildu zen hiru guneetara, gehiago ere izan zitekeen arren. Gure lankideek gure ustez, guztiei harrera goxoa eta ona egin diete, eta denak ondo sentituz egunaz gozatzea izan da gure helbururik nagusia, eta lortu dugula uste dugu. Egunean zehar eta ondoren, jendeak oso mezu politikak transmititu dizkigu eta guk ere gustura eta pozik bukatu genuen eguna.